

## 20/2022 Legea, urriaren 19koa, Memoria Demokratikoari buruzkoa.

BOE, 252 zk., 2022-10-20koa

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue:

Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

### HITZAURREA

|

XX. mendean Europa astindu zuten gerra zibilak eta mundu mailako gatazkak amaitu zirenetik, eta, bereziki, Holokaustotik hona, memoria demokratikoaren inguruko politikak bultzatzea betebeharrak bihurtu da, eta hori indartzea ezinbestekoa da ahanztura neutralizatzeko eta historiako gertaerarik tragikoenak errepikatu ez daitezen lortzeko.

«Sekula gehiago ez» esaldiaren pedagogiarekiko konpromiso irmoa funtsezko agindu etiko bihurtu da mundu osoko gizarte demokratikoetan.

Memoria-prozesuak edozein gizarteren konfigurazioaren eta garapenaren funtsezko osagaiak dira, eta arlo guztietan dute eragina: keinurik ohikoenetatik hasi, eta Estatu-politika handienetaraino.

Memoriaren hedapena bereziki garrantzitsua da identitate individual eta kolektiboak eratzeko orduan; izan ere, kohesiorako duen potentziala izugarria da, baina neurri berekoa da bazterketa, desberdintasuna eta konfrontazioa sortzeko duen potentziala ere.

Hori dela eta, Estatuak memoria demokratikoari buruzko politikak garatzerakoan duen erantzukizun nagusia politikak horien alderdi erreparatzaile, inklusibo eta plurala sustatzea da.

Horretarako, memoria demokratikoari buruzko politika publikoek gizarte zibilaren helburuak jaso eta bideratu behar dituzte, herritarren parte-hartzea eta gizarte-hausnarketa sustatu behar dituzte, eta indarkeria intolerante eta fanatiko orenen biktimen duintasuna erreparatu eta aitortu behar dute.

Hala, memoria elementu erabakigarria da herritartasun-mota ireki, inklusibo eta pluralak sustatzeko. Herritartasun horiek, gainera, beren historiak erabat kontziente izan behar dute, eta beren baitan sortzen diren joera totalitarioak edo antidemokratikoak detektatzeko eta desaktibatzen gai izan behar dute.

Espainiar gizartearen lorpen historikorik esanguratsuenak Espainian demokrazia lortzea eta sendotzea izan da.

1978ko Konstituzioaren printzipio eta balio demokratikoak finkatzeak indartsuago bihurtzen du

## Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática.

BOE, nº 252, de 20-10-2022

FELIPE VI

REY DE ESPAÑA

A todos los que la presente vieren y entendieren.

Sabed:

Que las Cortes Generales han aprobado y Yo vengo en sancionar la siguiente ley:

### PREÁMBULO

|

Desde el fin de las guerras civiles y conflictos mundiales que asolaron Europa en el siglo XX, y especialmente desde el Holocausto, el impulso de las políticas de memoria democrática se ha convertido en un deber moral que es indispensable fortalecer para neutralizar el olvido y evitar la repetición de los episodios más trágicos de la historia.

El firme compromiso con la pedagogía del «nunca más» se ha convertido en un imperativo ético fundamental en las sociedades democráticas en todo el mundo.

Los procesos de memoria son un componente esencial de la configuración y desarrollo de todas las sociedades humanas, y afectan desde los gestos más cotidianos hasta las grandes políticas de Estado.

El despliegue de la memoria es especialmente importante en la constitución de identidades individuales y colectivas, porque su enorme potencial de cohesión es equiparable a su capacidad de generación de exclusión, diferencia y enfrentamiento.

Por eso, la principal responsabilidad del Estado en el desarrollo de políticas de memoria democrática es fomentar su vertiente reparadora, inclusiva y plural.

Para ello, las políticas públicas de memoria democrática deben recoger y canalizar las aspiraciones de la sociedad civil, incentivar la participación ciudadana y la reflexión social y reparar y reconocer la dignidad de las víctimas de toda forma de violencia intolerante y fanática.

La memoria se convierte así en un elemento decisivo para fomentar formas de ciudadanía abiertas, inclusivas y plurales, plenamente conscientes de su propia historia, capaces de detectar y desactivar las derivas totalitarias o antidemocráticas que crecen en su seno.

La conquista y consolidación de la democracia en España ha sido el logro histórico más significativo de la sociedad española.

El asentamiento de los principios y valores democráticos que consagra la Constitución de 1978

gure gizartea, eta hori da etorkizuneko bizikidetzarako apusturik argiena.

Gure demokraziak hasiera-hasieratik gaur egun arte izan duen ibilbidea, haren gorabeherak eta Espainiako gizon zein emakumeen sakrifizioak ezagutzea ezinbesteko betebeharra da askatasunen eta demokraziaren aldeko borrokan, eta horrek gure gizartea indartuko du bertute zibikoari eta balio konstituzionalei dagokienez.

Esparru horretan, Espainiako gizarteak hainbat pertsona oroitu behar ditu: demokraziaren eta askatasunaren defentsan jazartitakoak, espetxeratutakoak, torturatutakoak, ondasunak galdutakoak, baita bizia ere galdutakoak.

Estatu-kolpearen, Espainiako Gerraren eta diktadura frankistaren biktimen memoria eta haien gaineko aitortpena, erreparazioa eta duintasuna, beraz, ezinbesteko betebeharrak dira bizitza politikoan, eta demokraziaren kalitatearen adierazgarri ere badira.

Historia ezin da eraiki garaiak ahaztuz eta isilaraziz.

Gure iragan hurbila ezagutzeak aukera ematen du gure arteko bizikidetzari oinarri sendoagoetan finkatzen laguntzeko, modu horretan iraganeko akatsik errepikatu ez dezagun.

Une honetan, gure ordenamendu konstituzionala sendotzeak aukera ematen digu gure iraganaren inguruko egiaz eta justiziaz hitzatzeko.

Ahaztea ez da demokrazia baterako aukera.

II

Memoria Demokratikoari buruzko lege honek erreferentzia gisa hartzen ditu Espainiako gizon eta emakumeek eskubideen, askatasunen eta demokraziaren alde egindako borroka indibidual eta kolektiboak.

Espainiak tradizio liberal eta demokratiko luzea gordetzen du, Cádizko Gorteekin eta 1812ko Konstituzioarekin batera sortua.

XIX. mende osoan eta XX. mendearen zati handi batean, espainiar askok egin zuten borroka, baita bizia eman ere, gure herrialdean sistema demokratiko bat ezartzearen alde, kontuan hartuta gure inguruko gainerako herrialdeetan ere mota horretako sistemak sortzen ari zirela.

1812, 1869, 1931 eta 1978ko konstituzioak gure historia demokratikoaren mugariak izan dira, eta itxaropenezko uneak ireki dituzte gure gizarte osoarentzat.

1978ko Konstituziora arte, garai demokratiko horiek modu zakarrean eteten zituzten gure herrialdea prozesu inklusibo, tolerantante, berdinzale, justizia sozialeko eta solidarioagoetatik urrundu nahi izaten zutenek.

Garai horietako azkena, zeinetan Espainiako Bigarren Errepublikak eta orduko erreforma politikoa eta sozial aurreratuak izan baitziren protagonista, Estatu-kolpe batek eta gerra basati batek eten

hace nuestra sociedad más fuerte y constituyen la más clara apuesta de convivencia en el futuro.

Conocer la trayectoria de nuestra democracia, desde sus orígenes a la actualidad, sus vicisitudes, los sacrificios de los hombres y las mujeres de España en la lucha por las libertades y la democracia es un deber ineludible que contribuirá a fortalecer nuestra sociedad en las virtudes cívicas y los valores constitucionales.

En ese marco, la sociedad española tiene un deber de memoria con las personas que fueron perseguidas, encarceladas, torturadas e incluso perdieron sus bienes y hasta su propia vida en defensa de la democracia y la libertad.

La memoria de las víctimas del golpe de Estado, la Guerra de España y la dictadura franquista, su reconocimiento, reparación y dignificación, representan, por tanto, un inexcusable deber moral en la vida política y es signo de la calidad de la democracia.

La historia no puede construirse desde el olvido y el silenciamiento de los vencidos.

El conocimiento de nuestro pasado reciente contribuye a asentar nuestra convivencia sobre bases más firmes, protegiéndonos de repetir errores del pasado.

La consolidación de nuestro ordenamiento constitucional nos permite hoy afrontar la verdad y la justicia sobre nuestro pasado.

El olvido no es opción para una democracia.

II

Esta ley de Memoria Democrática toma como referencia las luchas individuales y colectivas de los hombres y las mujeres de España por la conquista de los derechos, las libertades y la democracia.

España atesora una larga tradición liberal y democrática que surge con las Cortes de Cádiz y la Constitución de 1812.

A lo largo de todo el siglo XIX y gran parte del XX, multitud de españoles y españolas lucharon y dieron su vida por la implantación de un sistema democrático en nuestro país, en los mismos términos que se estaba construyendo en el resto de países de nuestro entorno.

Constituciones como la de 1812, 1869, 1931 y 1978 han sido hitos de nuestra historia democrática y han abierto momentos esperanzadores para el conjunto de nuestra sociedad.

Hasta la Constitución de 1978, esos periodos democráticos eran abruptamente interrumpidos por quienes pretendieron alejar a nuestro país de procesos más inclusivos, tolerantes, de igualdad, justicia social y solidaridad.

El último de ellos, protagonizado por la Segunda República Española y sus avanzadas reformas políticas y sociales, fue interrumpido por un golpe de Estado y una cruenta guerra que contó con el apoyo

zuten. Bi gertakari horiek Italiako eta Alemaniako Indar Armaturen eta haien gobernuen unitate erregularren laguntza izan zuten: hain zuzen ere, aipatutako unitate horiek Espainiako lurraldean parte hartu zuten. Espainiako Errepublikak, berriz, Espainiako Gerra gisa identifikatu zuen gertakari hori Nazioen Elkartearen aurrean.

Gatazka hura ez zen gatazka zibil hutsa izan, baizik eta zerbait gehiago: atzerriko potentzia batzuek hartu zuten parte, hala nola Italia, Alemania edo Sobietar Batasuna eta mendebaldeko potentzia nagusiek, berriz, parte ez hartzeko politikaren alde egin zuten.

Modu horretan, Espainiako Gerra beste Estatu batzuen aurkako erasoen atariko gisa uler daiteke. Eraso horiek, gerora, Nurenbergeko Auzitegiak epaitu eta kondenatu zituen, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1946ko abenduaren 11ko 95 (I) Ebazpenarekin bat etorritik. Hain zuzen ere, ebazpen hori Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren Nazioarteko Zuzenbide modernoaren parte izatera heldu da.

Gerran giza eskubideen aurka egindako urraketak eta gerraosteko eta diktadura frankistako errepresio ezin gogorragoa gaitzetsi egin ziren Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren txostenean, Parisen onartutakoa 2006ko martxoaren 17an.

Europako Kontseiluak deskribatutako gertaerak agerian uzten dutenez, Espainiako Gerran oso krimen larriak egin ziren, eta ondorengo diktadura frankistan sistema politiko autoritarioa ezarri zen, oposizio politikoaren zantzu oro modu sistematiko, orokor eta masiboan erreprimitu zuena.

Europako Kontseiluaren txostenak dioenez, Espainian hainbat ekintza egin ziren modu sistematikoan: desagertze behartuak, exekuzio estrajudizialak, atxiloketa arbitrarioak, kontzentrazio-esparruen politikak, bortxazko lanak, torturak, bortxaketak eta jaioberrien bahiketa masiboak, inspirazio eugenetikoko politika bati jarraituz.

Gaur egun, herritarrek egia historikoa jakiteko eskubide besterenezina dute; bai erregimen frankistak ezarritako indarkeria- eta izu-prozesuari buruz, bai eta errepresio horren biktimak izan zirenen balioei eta haien erresistentzia demokratikoko ekintzei buruz ere.

Esperientzia historiko horren aurrean, lege honek bi helburu ditu.

Alde batetik, gure historiako aro demokratikoaren gaineko ezagutza sustatu nahi du, bai eta, sakrifizio handiz, kultura demokratikoaren loturak apurka-apurka eraiki zituzten pertsona eta mugimendu guztien gaineko ezagutza ere; izan ere, horiei esker, 1978ko Konstituzioaren akordioak eta egungo Zuzenbideko Estatu Sozial

de unidades regulares de las Fuerzas Armadas de Italia y Alemania y sus respectivos Gobiernos, que intervinieron en territorio español y que fue identificada por la República Española ante la Sociedad de Naciones como Guerra de España.

Un conflicto, en definitiva, que trasciende de una contienda civil por la participación de potencias extranjeras como Italia, Alemania o la Unión Soviética y la política de no intervención de las principales potencias occidentales.

De esta manera, la Guerra de España sería prólogo de las agresiones a otros Estados que posteriormente serían juzgadas y condenadas por el Tribunal de Núremberg, conforme a la Resolución 95 (I) de 11 de diciembre de 1946, de la Asamblea General de las Naciones Unidas, y que ha pasado a formar parte del moderno Derecho Internacional de los Derechos Humanos y Derecho Internacional Humanitario.

Las violaciones de los derechos humanos durante la Guerra y la durísima represión de la posguerra y la dictadura franquista fueron condenadas en el informe de la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa, adoptado en París el 17 de marzo de 2006.

Los hechos descritos por el Consejo de Europa señalan que durante la Guerra de España se cometieron gravísimos crímenes y que durante la posterior dictadura franquista se estableció un sistema político autoritario que reprimió masivamente todo atisbo de oposición política de manera sistemática y generalizada.

Como indica el referido informe del Consejo de Europa, en España se produjeron de manera sistemática desapariciones forzadas, ejecuciones extrajudiciales, detenciones arbitrarias, políticas de campos de concentración, trabajos forzados, torturas, violaciones e incluso secuestro masivo de recién nacidos bajo una política de inspiración eugenésica.

La ciudadanía tiene actualmente el derecho inalienable al conocimiento de la verdad histórica sobre el proceso de violencia y terror impuesto por el régimen franquista, así como sobre los valores y los actos de resistencia democrática que llevaron a cabo quienes cayeron víctimas de su represión.

Frente a esta experiencia histórica, esta ley tiene un doble objetivo.

Por un lado, pretende fomentar el conocimiento de las etapas democráticas de nuestra historia y de todas aquellas figuras individuales y movimientos colectivos que, con grandes sacrificios, fueron construyendo progresivamente los nexos de cultura democrática que permitieron llegar a los acuerdos de la Constitución de 1978, y al actual Estado Social y Democrático de

eta Demokratikoa lortu ahal izan ziren, espainiarren eskubideak, nazionalitateak eta eskualdeak defendatu ahal izateko.

Beste alde batetik, lege honek Gerraren eta diktadura frankistaren biktimen memoria gorde eta mantendu nahi du: horretarako, egia ezagutu behar da, biktimen eskubidea den aldetik; justizia ezarri behar da; erreparazioa sustatu behar da; eta botere publikoen memoria-betebeharra ezarri behar da, edozein indarkeria politiko edo totalitarismo berriz gerta ez dadin.

III

Memoria erkidea eraikitzea ez da proiektu berria espainiar gizartean.

Erregimen frankistak memoriaren inguruko politika indartsua inposatu zuen hasiera-hasieratik, eta politika horrek errotik baztertzeko, kriminalizatzeko, estigmatizatzeko eta desagerrarazteko zituen garaitutako biktimak, legez eraturako Errepublikaren kontrako kolpe militarren garaipenaren ostean.

Errelato totalitario horren esparruan, eta Bigarren Errepublika defendatzen zuten pertsonen errepresio gogorrek bere horretan jarraitzen zuten bitartean, aitortzeko eta erreparazio moral eta ekonomikorako neurri garrantzitsuak ezarri ziren Estatu-kolpearen alde borrokatutako edo haren alde agertutako biktimei.

Hala, hobi komun ugari ireki ziren Estatuaren laguntzarekin eta metodologia zientifikoa erabiliz. Monumentu oroigarriak eta panteoiak eraiki ziren herrialde osoan, «erorien» izenak idatzi ziren elizetako plaketan, oroimenerako datak ezarri ziren, eta Estatu-kolpearen edo diktaduraren bultzatzaileen edo erregimen frankistak loriatutzeko jotako gertakarien omenezko izenak jarri zitzaizkien udalerriei, azpiegiturei, kaleei eta etorbideei.

Memoriaren inguruko proiekturik garrantzitsuena handik hogeitau urtera gauzatu zen: Erorien Harana, Francisco Franco diktadoreak inauguratutakoa «garaipen» militarren hogeigarren urteurrenean (1959ko apirilaren 1ean). Lege honek arreta berezia eskaintzen dio monumentu horri; izan ere, funtsezko ardatza da memoriaren inguruko politika frankisten esanahia modu demokratiko eta garaikidean berrikusteko orduan.

Diktaduraren babesari esker, memoria totalitarioko politika horiek sekulako eragin sozial eta politikoa izan zuten, baina ezin izan zuten memoria demokratikoaren jarraitutasuna desagerrarazi gure mugen barruan zein kanpoan; izan ere, erbesteratu errepublikanoak, borrokalari antifaxista espainiarrak eta zirkulu politiko eta artistiko klandestinoak arduratu ziren memoria demokratikoa bizirik mantentzeaz, diktaduraren aurkako borroka sindikaletan, ikasle-borroketan, herri-mugimenduetan eta elkarte feministetan.

Derecho para defender los derechos de los españoles, sus nacionalidades y regiones.

Por otro lado, esta ley persigue preservar y mantener la memoria de las víctimas de la Guerra y la dictadura franquista, a través del conocimiento de la verdad, como un derecho de las víctimas, el establecimiento de la justicia y fomento de la reparación y el establecimiento de un deber de memoria de los poderes públicos, para evitar la repetición de cualquier forma de violencia política o totalitarismo.

III

La construcción de una memoria común no es un proyecto nuevo en la sociedad española.

El régimen franquista impuso desde sus inicios una poderosa política de memoria que excluía, criminalizaba, estigmatizaba e invisibilizaba radicalmente a las víctimas vencidas tras el triunfo del golpe militar contra la República legalmente constituida.

En el marco de este relato totalitario, y al mismo tiempo que continuaba una dura represión sobre las personas que defendían la Segunda República, se establecieron importantes medidas de reconocimiento y reparación moral y económica a las víctimas que habían combatido o se habían posicionado a favor del golpe de Estado.

Así, se exhumó un gran número de fosas comunes con apoyo estatal y metodología científica.

Se erigieron monumentos conmemorativos y panteones por todo el país, se inscribieron los nombres de los «caídos» en placas en las iglesias, se establecieron fechas conmemorativas y se nombraron municipios, infraestructuras, calles y avenidas en honor de personajes impulsores del golpe de Estado, de la dictadura o de hechos considerados gloriosos por el régimen franquista.

El proyecto memorial más importante se plasmaría veinte años después en el Valle de los Caídos, inaugurado por el dictador Francisco Franco en el vigésimo aniversario de la «victoria» militar (1 de abril de 1959), monumento al que esta ley presta especial atención al estar llamado a ser un eje fundamental de la resignificación democrática contemporánea de las políticas franquistas de memoria.

Estas políticas de memoria totalitaria tuvieron una enorme influencia social y política gracias a su respaldo dictatorial, pero no consiguieron borrar la continuidad de la memoria democrática dentro y fuera de nuestras fronteras, de la mano del exilio republicano, los combatientes antifascistas españoles, círculos políticos y artísticos clandestinos, en las luchas sindicales y estudiantiles de oposición a la dictadura, en el movimiento ciudadano y en las asociaciones feministas.

Diktadorearen heriotza (1975ean) eta demokrazia iritsi izana inflexio-puntua izan ziren frankismoan ezarritako memoria-politikari zegokionez.

Indarrean dagoen Konstituzioa konpromiso sozial eta politiko handi batean oinarritu zen, gerran eta diktadura frankistaren berrogei urteetan espainiar gizarteak jasandako zauri larri eta sakonak gainditu ahal izateko.

Adostasun hori gure trantsizio politikoaren espiritua izan zen, eta gure herrialdeak ezagutu duen distira eta oparotasun handieneko garaia oinarria izan da.

Trantsizioak bere gain hartu zuen espainiarren hainbat belaunaldik osatutako ondare demokratikoa eta duintasun-ondarea; hain zuzen ere, belaunaldi horiek demokraziaren defentsaren, Europako borroka antifaxistaren eta gure herrialdeko askatasun individual eta kolektiboen berreskurapenaren inguruan osatu zuten aipatutako ondare hori.

Hori horrela, geroztik, hainbat ekimen politiko, legal, sozial eta kulturalak erreparatu eta estali dituzte arrakala horiek, herritarren arteko bereizketa saihesteko eta espainiarren hainbat belaunaldiren arteko kohesioa eta elkartasuna sustatzeko asmoz, betiere gure ordenamendu juridikoaren goi-mailako balioen, konstituzio-printzipioen eta oinarritzko eskubide zein askatasunen inguruan.

Demokrazia iristearekin batera, Espainiak bat egin zuen Giza Eskubideen nazioarteko tratatu guztiekin, eta horren inguruko organoak ere aitortu zituen; eta, denborarekin, erreferentziako herrialde izatera iritsi zen nazioartean, bere askatasun publikoen garapen, aitortza eta bermearen mailagatik eta bere eskubide zibilen sistemaren aurrerapen eta konpromiso mailagatik.

Konstituzioa onartu baino lehen, 1977ko apirilaren 30ean, Nazio Batuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna berretsi zen, berau babesteko mekanismoak eta bermeak ere jasota.

Ibilbide horrek aurrera jarraitu zuen, eta horrela, besteak beste, Torturaren eta bestelako tratatu edo zigor krudel, gizagabe edo iraingarrien aurkako Konbentzioa berretsi zen 1987ko urriaren 19an, bai eta Pertsona Oro Desagertze Behartuetatik Babesteko Nazioarteko Konbentzioa ere, 2009ko uztailaren 14an.

Gerraren amaieratik modu demokratikoa aukeratutako lehenengo Parlamentuak Amnistiaren urriaren 15eko 46/1977 Legea onartu zuen, oposizio antifrankistaren erreklamazio historikoa zena. Lege hori 1978ko Konstituzioa baino lehen idatzi zen, baina 1977ko apirilaren 30ean berretsitako Eskubide Zibil eta

La muerte del dictador en 1975 y la llegada de la democracia supusieron un punto de inflexión respecto a la política de memoria instaurada durante el franquismo.

La vigente Constitución se fundamentó en un amplio compromiso social y político para la superación de las graves y profundas heridas que había sufrido la sociedad española durante la guerra y los cuarenta años de dictadura franquista.

Este consenso fue el espíritu de nuestra transición política, y ha sido la base de la época de mayor esplendor y prosperidad que ha conocido nuestro país.

La Transición asumía el legado democrático y de dignidad que varias generaciones de españoles y españolas habían forjado en torno a la defensa de la democracia, la lucha antifascista en Europa y la recuperación de las libertades individuales y colectivas en nuestro país.

Así, y desde entonces, múltiples iniciativas políticas, legales, sociales y culturales han venido a reparar y restañar esas brechas para evitar la división entre la ciudadanía y fomentar la cohesión y solidaridad entre las diversas generaciones de españoles y españolas en torno a los valores superiores de nuestro ordenamiento jurídico, los principios constitucionales y los derechos y libertades fundamentales.

Con la llegada de la democracia, España se sumó a todos los tratados internacionales de Derechos Humanos reconociendo a sus diferentes órganos, y con el tiempo, convirtiéndose en un país de referencia internacional por el nivel de desarrollo, reconocimiento y garantía de sus libertades públicas y lo avanzado y comprometido de su sistema de derechos civiles.

Antes incluso de la aprobación de la propia Constitución, se había ratificado el 30 de abril de 1977 el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, de Naciones Unidas, incorporando los mecanismos y garantías para su protección.

Esta trayectoria proseguiría con la ratificación, entre otros, de la Convención contra la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes, el 19 de octubre de 1987, así como de la Convención Internacional para la Protección de todas las Personas contra las Desapariciones Forzadas, el 14 de julio de 2009.

El primer Parlamento elegido democráticamente desde el final de la Guerra aprobó la Ley 46/1977, de 15 de octubre, de Amnistía, una reclamación histórica de la oposición antifranquista, dictada antes de la Constitución de 1978, pero posteriormente a la entrada en vigor en España del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, ratificado el 30 de abril de 1977.

Politikoen Nazioarteko Ituna Espainian indarrean jarri ondoren.

Lege horren bitartez, asmo politikoko delitu guztiak eta lan zein sindikatu arloko arau-hauste guztiak amnistiatu ziren.

Prozesu politiko horren helburua gizarte demokratiko aurreratua eraikitzea eta berradiskidetzea lortzea zen, baina, horrez gain, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen garapenaren babespean, giza eskubideen organismoen praktikaren bitartez eta Konstituzioaren 10.2 artikularekin bat etorritz, bermatu egin behar da giza eskubideen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren inguruko urraketa larrien biktimek egitarako eta justiziarako duten eskubidea, bai eta aitortzarako eta erreparaziorako forma egokiak ere, eta hori guztia bizikidetzak baketsua eta gure demokraziaren etengabeko garapena sustatzeko jatorrizko helburuan sakondu ahal izateko.

Memoriaren esparruan, Trantsizioko hasierako urteetatik, botere publikoek eta gizarte zibilak mota askotako neurri sinboliko ugari sustatu zituzten, erreparazio ekonomikorako, frankismoaren biktimak aitortzeko eta diktadura kondenatzeko. Neurri horiek Estatu-kolpeak, gerrak eta erregimen autoritarioaren errepresio luzeak eragindako kalteak eta ondorioak zuzentzeko eta orekatzeko asmoz hartu ziren, baina ez zuten memoriaren inguruko politika publikoak integratuko zituen memoria-esparrurik, ondoren finkatuko zirenen antzekorik.

Ekimen horiek irrimo sustatu ziren XX. mendeko azken urteetan, «iloben belaunaldia» deitutakoak jakin nahi izan zuenean zer gertatu zen beren arbasoekin, eta exijitu zutenean biktima errepublikanoen duintasuna berreskuratu eta aitortzeko.

Modu horretan, XXI. mendearekin batera, fase berri bat irekitzen da memoriaren inguruko politiketan, eta horrek modu argiagoan bateratzen du, nahiz eta apurka-apurka izan, Espainiako memoria demokratikoa Europako memoriarekin eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearekin, zeina egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta ez erreparatzeko bermearen nazioarteko printzipioetan islatzen baita.

Esparru horretan, memoria historia berreskuratzearen aldeko mugimenduak bultzada berria hartu zuen, eta frankismoaren biktimak duintzeko eta omentzeko ekitaldiak ugaritu egin ziren; era berean, atzegoardian eraildako errepublikano zibilak hobi komunetatik ateratzeko ziklo berri bati ekin zitzaion, eta horrela, inpaktu publiko mediatiko handiari esker, memoriaren esparruan bukatu gabe zeuden zereginetara heltzeko beharizanaren inguruko kontzientzia piztu ahal izan zen.

Esta ley tuvo por virtud amnistiar todos los delitos de intencionalidad política e infracciones de naturaleza laboral y sindical.

Sin perjuicio de la voluntad de reconciliación y de construcción de una sociedad democrática avanzada que presidió ese proceso político, a la luz del desarrollo del Derecho Internacional de los Derechos Humanos, la práctica de los organismos de derechos humanos, y de conformidad con el artículo 10.2 de la misma Constitución, se ha de garantizar el derecho a la verdad y a la justicia de las víctimas de graves violaciones de los derechos humanos o del derecho internacional humanitario, así como las oportunas formas de reconocimiento y reparación, todo ello para profundizar en el objetivo original de fomentar la convivencia pacífica y el continuo desarrollo de nuestra democracia.

En el campo memorial, desde los primeros años de la Transición, tanto los poderes públicos como la sociedad civil impulsaron un número muy importante de medidas simbólicas de diversa índole, de reparación económica, de reconocimiento de víctimas del franquismo y condena de la dictadura, dirigidas a corregir y equilibrar los perjuicios y consecuencias aparejados al resultado del golpe de Estado y la guerra, así como la larga represión de un régimen autoritario, aunque carecían de un marco memorial integrador de políticas públicas de memoria como los que se consolidaron posteriormente.

Unas iniciativas que se impulsaron decididamente en los años finales del siglo XX, cuando la llamada «generación de los nietos» quiso conocer lo que pasó con sus antepasados y exigieron la recuperación y el reconocimiento de la dignidad de las víctimas republicanas.

De esta manera, con el siglo XXI se abre una nueva fase en las políticas de memoria que conecta con mayor claridad, aunque de manera paulatina, la memoria democrática en España con la memoria europea y con el Derecho Internacional de los Derechos Humanos que se plasma en los principios internacionales de verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición.

En ese marco, el movimiento en pro de la recuperación de la memoria histórica cobró nuevo impulso, multiplicándose los actos conmemorativos de dignificación y homenaje de las víctimas del franquismo, así como el inicio de un nuevo ciclo de exhumaciones de fosas comunes de civiles republicanos y republicanas asesinados en la retaguardia, contribuyendo mediante un gran impacto público mediático a crear conciencia de la necesidad de acometer las asignaturas pendientes en el ámbito memorial.

Modu paraleloan, esparru instituzionalean, Kongresuaren Batzorde Konstituzionalak legez besteko proposamen bat onartu zuen aho batez 2002ko azaroaren 20an, eta, horren bitartez, honako hau promulgatzen zen: «Espainiako gerra zibilaren biktimen izandako gizon eta emakume guztien aitortza morala, bai eta, ondoren, diktadura frankistaren errepresioa jasan zuten guztiena ere». Baieztapen hori modu berean errepikatu zen Kongresuaren Osoko Bilkuran, 2004ko ekainaren 1ean.

Espainiako memoria demokratikoaren dimentsio europarrean eta nazioartekoan sakontzeari dagokionez, bereziki garrantzitsua izan zen Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren 2006ko martxoaren 17ko Gomendia, zeinetan kondenatu egiten baitziren «erregimen frankistak Espainian egindako Giza Eskubideen urraketa larriak». Hain zuzen ere, bultzada horrek ahalbidetu zuen abenduaren 26ko 52/2007 Legea onartzea, zeinaren bitartez gerra zibilean edo diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortzen eta handitzen baitira, eta haien aldeko neurriak ezartzen baitira.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legearen bitartez, Estatuak modu garrantzitsuan erantzun zien gizarte zibilaren eta Europako Kontseiluaren eskakizunei, eta horrek funtsezko inflexio-puntua ezarri zuen Espainiako memoria demokratikoaren inguruko politika publikoen instituzionalizazio-prozesuan.

Legea eskakizun legitimo baten testuinguruan onartu zen; izan ere, gure herrialdeko ordenamendu juridikoak zor historiko hori zeukan gainean, hau da, gerraren eta ondorengo diktadura frankistaren biktimen inguruko erreparazioaren zorra.

Alde horretatik, abenduaren 26ko 52/2007 Legearen balio handia da memoria pertsonal eta familiarra herritartasun demokratikoaren esparruan kokatu izana, modu orokorrean aitortuz biktimak eta erreparazioaren duten eskubide indibidual eta kolektiboa, eta ex lege deklaratu frankismoko organo errepresioaren legitimotasunik eza.

Abiapuntu horretatik, botere publikoek zenbait betebeharrak hartzen zituzten beren gain, Gerraren eta frankismoan Espainian jazotako gertakarien inguruko egia aitortzeko, desagertuak aurkitu eta identifikatzeko, espazio publikoan Diktadura gorestekiko edozein modu desagerrarazteko, eta artxibo publiko zein pribatuetara heltzeko modua ahalbidetzeko.

Modu horretan, Kultura Ministerioaren mendeko Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroak artxibo eta dokumentu ugari berreskuratzen jarraitu zuen, bai Espainian eta bai erbesteratu-talde edo pertsona espainiarrak egon zireneko herrialdeetan.

En paralelo, en el ámbito institucional, destaca la aprobación por unanimidad de la Comisión Constitucional del Congreso el 20 de noviembre de 2002 de la Proposición no de Ley que promulgaba el «reconocimiento moral de todos los hombres y mujeres que fueron víctimas de la guerra civil española, así como de cuantos padecieron más tarde la represión de la dictadura franquista», afirmación que se reitera en el mismo sentido por el Pleno del Congreso el 1 de junio de 2004.

De especial importancia en la profundización de la dimensión europea e internacional de la memoria democrática en España fue la Recomendación de la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa del 17 de marzo de 2006, en la que se condenaban las «graves violaciones de los Derechos Humanos cometidas en España por el régimen franquista», y que constituye el impulso definitivo para la adopción de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil o la dictadura.

La Ley 52/2007, de 26 de diciembre, supuso una respuesta de gran calado desde el Estado a las demandas de la sociedad civil y del Consejo de Europa, y marcó un punto de inflexión clave en el proceso de institucionalización de las políticas públicas de memoria democrática en España.

La Ley fue aprobada en el contexto de una exigencia legítima, una deuda histórica que pesaba sobre el ordenamiento jurídico de nuestro país, la reparación de las víctimas de la guerra y la posterior dictadura franquista.

En este sentido, el gran valor de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, reside en haber situado la memoria personal y familiar en el ámbito de la ciudadanía democrática, mediante el reconocimiento general de las víctimas, su derecho individual y colectivo a la reparación y declarando ex lege la ilegitimidad de los órganos represores del franquismo.

Desde este punto de partida, los poderes públicos asumían una serie de obligaciones dirigidas a reconocer la verdad de los hechos sucedidos en España durante la Guerra y el franquismo, localizar e identificar a los desaparecidos, desterrar cualquier forma de exaltación de la Dictadura en el espacio público y facilitar el acceso a los archivos públicos y privados.

Así, el Centro Documental de la Memoria Histórica, dependiente del Ministerio de Cultura, continuó una importante recuperación de fondos archivísticos y documentales tanto en España como en los países en los que se averiguó la presencia de grupos de exiliados o personalidades españolas.

Era berean, praktikan jarri zen Ministro Kontseiluaren 2008ko urriaren 31ko Erabakia, zeinaren bitartez argibideak ematen baitira sinbolo frankistak kentzeko Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren mendeko erakunde publikoen ondasunetatik.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legeak garapen handia izan zuen 2011ra arte, eta aurrekontu-jarraipena eman zien Memoria Historikoaren inguruko jardueretarako dirulaguntzei, biktimei arreta emateko bulegoarekin, Estatuko hobien maparekin, Erorien Haranaren etorkizunerako Adituen Batzordearekin eta Gerra Zibilaren eta Diktaduraren biktimak desobiratzeko jarduera-protokoloarekin, besteak beste.

Lan hori, baina, modu zakar eta bidegabeen eten zen.

Demokraziaren eta askatasunen alde beren bizitza eta askatasun propioak arriskuan jarri zituztenen aldeko erreparazio-ahalegin horrek ez zuen jarraipenik izan X. eta XI. legegintzaldietan: neurri horiek zuzkidurarik gabe utzi ziren eta politika horretarako aurrekontu-partida kendu egin zen.

Ondorioz, gizarte zibilak eta mugimendu memorialistak memoriaren inguruan egiten zituzten jardueretako asko bitartekorik gabe eta instituzioen babesik gabe geratu ziren, nahiz eta, zenbait lurraldetan, memoriaren inguruko politikak garatu ziren esparru autonomikoan.

Gerotik, hainbat autonomia-erkidegok memoria historiko eta demokratikorako lege propioak onartu dituzte, eta beste batzuek memoriaren inguruko ekintzak garatu dituzte zenbait eskalatan.

Legegintzako garapen autonomiko horiek zenbait artikulazio-maila dituzte Estatuko legegintzarekiko, eta horietako batzuetan ezarri diren mekanismoek gainditu eta aberastu egiten dute abenduaren 26ko 52/2007 Legean ezarritako memoria-erregimena, pilatutako esperientziari esker, memoriaren inguruko mugimenduaren erreklamazioetan egon diren eraldaketei esker eta giza eskubideen babesaren inguruko nazioarteko tresna juridikoak sendotu izanari esker.

Aldi berean, lege horiek beren artikuluetako batzuk modulatzeko autonomia-erkidego bakoitzeko memoriaren inguruko beharrian eta kultura espezifikoei arreta emateko.

Modu horretan, hainbat eskumen sektorial elkarterakoan, lankidetzaz-printzipioari dagozkion mekanismoak eta bermeak ezarri behar dira, bermatu ahal izateko eskumen propioak errespetatuko direla eta administrazio publiko bakoitzari agindutako eta inplikaturako interes publikoak neurritzekoak izango direla, beren eskumenak garatzerakoan.

Era berean, kontuan izan behar da toki-erakunde gehien-gehienek aztarnak ezabatzeko planak eta

Igualmente, se puso en práctica el Acuerdo del Consejo de Ministros, de 31 de octubre de 2008, por el que se dictan instrucciones para la retirada de símbolos franquistas en los bienes de la Administración General del Estado y sus organismos públicos dependientes.

La Ley 52/2007, de 26 de diciembre, tuvo un importante desarrollo hasta 2011, dando continuidad presupuestaria a las subvenciones para actividades de Memoria Histórica, con la oficina de atención a las víctimas, el mapa de fosas del Estado, la Comisión de Expertos para el futuro del Valle de los Caídos y el protocolo de actuación en exhumaciones de víctimas de la Guerra Civil y la Dictadura, entre otros.

Esta tarea fue, sin embargo, abrupta e injustificadamente interrumpida.

Este esfuerzo reparador en favor de quienes comprometieron su vida y su libertad en la lucha por la democracia y las libertades no tuvo continuidad en las X y XI Legislaturas, dejándose de dotar estas medidas y eliminándose la partida presupuestaria para esta política.

Como consecuencia, la continuación de muchas de las actividades memoriales por parte de la sociedad civil y el movimiento memorialista sufrieron la carencia de medios y orfandad institucional, contrarrestado en algunos territorios por el desarrollo de la política memorial en el ámbito autonómico.

Desde entonces, un buen número de comunidades autónomas han aprobado sus propias leyes de memoria histórica y democrática, y otras han desarrollado actuaciones de memoria en diversas escalas.

Estos desarrollos legislativos autonómicos tienen diferentes niveles de articulación con la legislación estatal y algunos de ellos han instaurado mecanismos que, gracias a la experiencia acumulada, a las transformaciones en las reclamaciones del movimiento memorial y al fortalecimiento de los instrumentos jurídicos internacionales relativos a la protección de los derechos humanos, trascienden y enriquecen el régimen memorial establecido en la Ley 52/2007, de 26 de diciembre.

Al mismo tiempo, estas leyes modulan parte de su articulado para atender a las necesidades y culturas memoriales específicas de cada comunidad autónoma.

De esta manera, al concurrir diversas competencias sectoriales, se plantea la necesidad de establecer mecanismos y garantías propios del principio de colaboración, que garanticen el respeto a las competencias propias y la ponderación de los intereses públicos implicados y encomendados a las distintas administraciones públicas en el ejercicio de sus competencias.

También teniendo en cuenta que la inmensa mayoría de entidades locales han llevado o están llevando a



desagertuak berreskuratu eta identifikatzeko planak garatu dituztela, edo garatzen ari direla.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legeak guztiz testu baliagarria izaten jarraitzen du, nahiz eta, hamahiru urte baino gehiagoko indarraldiaren ostean, agerian geratu den berritu beharra dagoela, helburuak lortuko baditu.

Gerraren eta frankismoaren biktimak babesteari buruzko esparru honetan, oraindik jorratu gabeko gaiak daude, eta arau berri honek erantzuna eman nahi die.

Jorratu gabekoak eta garrantzi berezikoak izateaz gain, giza eskubideen esparruko nazioarteko hainbat erakundek agerian jarritakoak dira.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legea onartu ondoren, gerraren eta diktadura frankistaren biktimei buruzko eta garai horietan giza eskubideen aurka egindako urraketa larriei buruzko giza eskubideen nazioarteko ikuspegiak garrantzi berezia hartu du, eta zenbait mugari esanguratsu ezarri dira; esate baterako, Pertsona Oro Desagertze Behartuetatik Babesteko Nazioarteko Konbentzioa berretsi eta indarrean jarri izana 2006ko abenduaren 20an, eta ondoren Espainiak ere berretsi izana, 2009ko uztailaren 14an.

Europar Batasunaren esparruan, Europako Parlamentuaren 2009ko apirilaren 2ko Ebazpenak agerian jarri du identitate komun europar sendo bat eraikitzeko borondate irmoa dagoela, totalitarismo mota guztien aurkako balio demokratikoen inguruan. Era berean, agerian jarri du garrantzitsua dela diktadura mota guztien aurka aritutako biktimak ohoratzea, eta Europaren etorkizunerako ere garrantzitsua dela iraganaren inguruko memoria bizirik mantentzea, ezin baita berradiskidetzetik egon egiarik eta memoriarik gabe.

X. eta XI. legegintzaldietan, funtsezko bi gertaera jazo ziren Espainiako memoria demokratikoaren inguruko politiken garapenaren nazioartekotze gero eta handiagoan.

Nazio Batuek sustatuta, Desagertze Behartuei edo Borondatez Kontrakoei buruzko Lantaldeak eta Pablo de Greiffek –egiarako, justiziarako, erreparazioarako eta ez errepikatzeko bermeetarako errelatore berezia– zenbait bisita egin zituzten, eta bisita horiek eragin handiko bi txostenetan islatu ziren 2014an.

Espainiari egindako ohar eta gomendioetan, bat datoz adierazterakoan Espainiak bere egin behar dituela nazioarteko betebeharrak, eta, horretarako, lidergo eta konpromiso argia hartu behar duela Gerran eta Diktaduran desagertutako pertsonak bilatzeko orduan, Estatu-politika integral, koherente, iraunkor, kooperatibo eta lankidetzazko betebeharrak gisa.

cabo sus planes de eliminación de vestigios y de recuperación e identificación de desaparecidos.

La Ley 52/2007, de 26 de diciembre, sigue siendo un texto plenamente válido, aunque, tras más de trece años de vigencia, se ha puesto de relieve la necesidad de su reforma para alcanzar sus objetivos.

Quedan cuestiones pendientes en este ámbito de la protección de las víctimas de la guerra y el franquismo a las que esta nueva norma pretende dar respuesta.

Cuestiones pendientes y de especial importancia que han sido, además, puestas de manifiesto por distintos organismos internacionales en el ámbito de los derechos humanos.

Con posterioridad a la aprobación de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, la perspectiva internacional de los derechos humanos en relación con las víctimas y las graves violaciones a los derechos humanos cometidas durante la guerra y la dictadura franquista cobran una particular relevancia, con hitos significativos como la ratificación y entrada en vigor de la Convención Internacional para la Protección de todas las Personas contra las Desapariciones Forzadas, de 20 de diciembre de 2006, y ratificada por España el 14 de julio de 2009.

En el ámbito de la Unión Europea, la Resolución del Parlamento Europeo de 2 de abril de 2009 ha puesto de relieve la firme voluntad de construir una sólida identidad común europea en torno a los valores democráticos y contra toda forma de totalitarismo, así como la importancia de honrar a las víctimas que se opusieron a toda forma de dictadura, y la importancia para el futuro de Europa de mantener viva la memoria del pasado, puesto que no puede haber reconciliación sin verdad y sin memoria.

Durante las Legislaturas X y XI, tienen lugar dos hechos fundamentales en la internacionalización creciente del desarrollo de las políticas de memoria democrática en España.

Las visitas impulsadas por las Naciones Unidas del Grupo de Trabajo sobre Desapariciones Forzadas e Involuntarias y del Relator especial para la verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición, Pablo de Greiff, se plasmaron en dos influyentes informes en 2014.

En sus observaciones y recomendaciones a España coinciden en señalar la necesidad de asumir las obligaciones internacionales mediante un claro liderazgo y compromiso en la búsqueda de personas desaparecidas durante la Guerra y la Dictadura, como obligación de una política de Estado integral, coherente, permanente, cooperativa y colaborativa.

Desobiratzeak «privatizatzeko» indarrean dagoen ereduarekin arduratuta, eta erantzukizun hori biktimei eta elkarteei delegatu zaiela jabetuta, adierazi zuten ez dagoela inola ere uzkur jokatzetik eta Estatuak hartu behar duela erantzukizuna desobiratze-prozesuetan, koordinazioaren eta metodologiaren arloan sortutako oztopoak konpondu ahal izateko.

Era berean, bi txostenek beste balio bat ere badute: biktimeen elkarteen eta herrialdeko beste zenbait eragile sozial eta politiko esanguratsuren iritziak eta erreklamazioak jasotzen dituzte, eta, gainera, Espainiako kasua testuinguru globalean kokatzen dute, bere espezifikotasunak erakutsiz baina munduko beste toki batzuetako memoria-prozesu baliokideekiko antzekotasunak ere agerian jarri.

2018. urtearen erdialdean, berriro heldu zitzairen memoria historikoa aitortzeko Estatuako politika publikoari; horretarako, zenbait neurri hartu ziren: esate baterako, gure historia demokratikoan lehen aldiz, Memoria Historikorako Zuzendaritza Nagusia sortu zen, edo espainiar errepublikanoen erbesteratzearen 80. urteurrena gogoratzeko ekitaldia egin zen, gerraren eta diktadura frankistaren ondorioz erbesteraren bidea hartu behar izan zuten milioi erdi aberkide inguru haiek omentzeko eta oroitzeko. Haietako batzuk, gainera, nazien kontzentrazio-esparruetara deportatu zituzten, eta hantxe hil zituzten.

Parlamentuaren 2017ko maiatzaren 11ko agindua betez, 2019ko urriaren 24an Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak desobiratu ziren Erorien Haranetik. Gertakari hori erabat mugari sinbolikoa izan da eta iragan frankistarekiko haustura objektiboa ekarri du, eta, hiru botere konstituzionalen bermea jasota, justizia- eta duintasun-ekintza izan da frankismoaren biktimekiko, bai eta gure demokraziaren garaipena ere.

Estatuaren zuzeneko erantzukizuna da memoria demokratikoari buruzko politikak etengabe egokitzea Estatu mailako, maila autonomikoko eta toki mailako beharizan berrietara, bai eta nazioartean artikulatzen diren memoriaren inguruko eta giza eskubideen defentsarako paradigma berrietara egokitzea ere.

Beraz, doikuntza esanguratsuak egin behar dira Estatuako legegintza-esparruan, hainbat arlo kontuan hartuta: gorabehera sozial eta politikoen eraldaketa, abenduaren 26ko 52/2007 Legearen artikuluetan aurreikusitako zenbait neurri ezartzearen zailtasuna, memoriaren inguruko politika autonomikoen garapena eta horietatik eratorritako esperientzia, mugimendu memorialistaren eta gizarte zibilaren ekarpenak eta eskaera berriak, giza eskubideen arloko kulturen eta praktiken aurrerapen globala, eta giza

